

**INGURUMENA.** 2002an, 28.843 tona hondakin batu zituen, 2001ean baino % 34,5 gehiago

# Garbiguneen ganeko igazko balantzea ezinhobea dala esan dau Solabarrietak

Joandako urteekin alderatuta, errekorra gainditu dabela azaldu dau Ingurumen diputauak

Izaskun Basterretxea |

Bizkaiko garbiguneen (Bilbokoak izan ezik) igazko datuak emon zituen atzo Maria Esther Solabarrieta Ingurumen diputauak, Mari Carmen Urbieta Al- dundiko Ingurumen Saileko zuzendariak eta Iñaki San Juan Garbiker enpresako zuzendariak. Igazko balantzea «ezin hobea» dala nabarmendu eban Solabarrietak. «Joan dan urteekin alderatuta, geure errekorra gainditu dogu», azpimarratu eban. Izan be, 28.843 tona hondakin batu zituen igaz garbiguneetan, hau da, 2001ean baino % 34,5 gehiago, 21.439 tona hondakin batu zituen-eta orain dala urte bi.

Eta aurreragoko urteetako datuekin konparau ezker, askoz handiagoa da aldea: 2000koagaz (15.155 tona) alderatuta, adibidez, % 90ekoa da diferentzia, eta 1999az (9.032 tona) alderatuta, % 219koa.

Gaur egun, 19 garbigune dagoz, eta lehenengoa zabaldu ebenetik —1997ko apirilean, Basaurin— hona, 80.411 tona hondakin jaso ditue guztira. «Eta benetan datu garrantzitsua da hori, pozgarria; izan be, garbigunerik egongo ez balitz, nora bota hondakinak? Kontrolau bako zabortegei gehiago egongo litzatekez», azaldu eban Ingurumen diputauak.

**Egunean eguneko batenaz bestekoa: 103 tona**

Datu guztien batuketea egin



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Iñaki San Juan Garbiker enpresako zuzendaria, Maria Esther Solabarrieta Ingurumen diputaua eta Mari Carmen Urbieta Ingurumen Saileko zuzendaria, atzo goizean emondako prentsaurrekoan.

ostean, egunean eguneko batenaz bestekoa zenbatu dabe: 103 tona.

Lau garbigunetan baino ez dabe lortu tona bat baino gixi: Markinan, 946 kilo; Gauegiz Arteagan, 601 kilo; Orkoneran, 458 kilo; eta Karrantzan, 398 kilo.

Erabiltzaileei begira, oster, 181.208 bizkaitarrek eroan zituen hondakinak garbigunetara. Datu hori be handiagoda da 2001ekoagaz alderatu ezke-

## BATUTAKO HONDAKINAK

### Obra hondakinak eta egurra

Gauza guztien artean gehien batutakoa obra hondakinak (% 58,71) eta egurra (% 17,54) izan zan igaz. Eta gero, plastikoak (% 3,64), etxeko elektrotresna txikiak (% 3,43), metalak (% 3,14), pneumatikoak (% 2,63) eta papera eta kartoia (% 1,46). Pinturak, tonerra...

ro, % 42 handiagoda. 2001ean 127.869 pertsonak erabili zituen garbiguneak. Egunean eguneko zenbatekoa atara ezker, igaz, batenaz beste, 651 pertsona joan ziran garbigunereren batera egunean. 2001ean, oster, 430 erabiltzaile joan ziran egunean. «Hori be nahiko datu esanguratsua da; izan be, zakar poltsetara botaten ez dan produktuen edo gauzen ganean gabilz berbetan».

## DATUAK

### DAGOZANAK

### Hondakinik gehien eta gitxien batzen daben garbiguneak

Gaur egun, 19 garbigune dagoz zabalik (Bilbokoak kontuan hartu barik) eta horreetatik bederatzitan jaso eben hondakinik gehien igaz. Zerrenda horretan lehenengoa, Santurtzikoa da (5.346 tona). Eta gero, kantidadearen arabera jarraian, Basaurikoa (4.401 tona), Getxokoa (3.332 tona), Barakaldokoa (2.906 tona), Erandiokoa (2.879 tona), Deriokoa (1.725 tona),

Sestaokoa (1.497 tona), Mungiakoa (1.265 tona), eta Durangokoa (1.048 tona). «Azpimarratzekoa da Barakaldokoa laugarren lekuan egotea; izan be, orain dala bederatziti hilabete baino ez eben zabaldu», azpimarratu eban Ingurumen diputauak. Datuak datu, bederatziti garbigune horreetan batu eben hondakinik gehien igaz: % 84.

Hondakinik gitxien, oster, Karrantzakoan jaso eben: 118 tona. Dana dala, hori normala dala azaldu eban diputauak: «Ibar horretan jente asko ez dalako bizi, 3.400 bizilagun baino gixiagoda bizi dira han».

### HURRENGO GARBIGUNEAK

### Beste sei garbigune zabaltzeko beharrean dabilz

Garbiguneak izatea garrantzitsua dala azpimarratu ostean, datozan hilabeteetan sei bat zabalduko dituela azaldu eban Maria Esther Solabarrieta Ingurumen diputauak. «Laster, hemendik gitxira, Bermeon zabalduko dabe». Muskitzen be badabilz horretarako beharrean. «Arazo batzuk sortu dira Muskizkoagaz, baina ondo doa dana, behintzat proiektua bideratuta

dago». Bakion be badabilz non eregi erabagiteko lur sailaren bila. «Lur eremua erosteko egin beharreko bitarteko lanetan gabilz», nabarmendu eban diputauak.

Arratian be zabalduko dabe, Artean hain zuzen. «Zornotzan egon badago bat, baina Arratiakoentzat ondo etorriko da euren eskualdean bertan eukitea garbigunea». Lea-Artibain be hirugarren garbigunea zabaltzeko asmoa daukie: «Oraindino baina, ez dakigu zehatz non eregi, baina, beno, hori aztertzen gabilz». Eta Orduñan be eskatu dabe han zabaltzeko.

## HEZKUNTZEA

### Bilboko Udalaren eta Deustuko Unibersidadearen arteko akordioa

Erredakzioa |

Hezkuntzearen, trebakuntzearen eta gazteen ganeko akordioa sinatu dabe Bilboko Udalak eta Deustuko Unibersidadeak. Itunaren helburua da erakunde biak aberastea hiru arlo horreekin.

Akordioaren arabera, Udalaren laguntasunagaz teknologia barriak sartuko ditue Pedagogia eta Gizarte Hezkuntzako ikasketetan, eta horren ganeko aholkuak eta azalpenak emongo deusiez. Horretarako, 30 Pentium ordenagailugaz gertauko dabe areto bat.

Beste alde batetik, Pedagogia eta Gizarte Hezkuntza ikasten dabilzan hainbat ikaslek Bilboko udaletxean praktikak egiteko aukerea izango dabe.

Hortik aparte, Unibersidadeko Pedagogia Saileko adituek gazteen eta hezkuntzearen ganeko aholkuak emongo deusoz Udalari.

## GARRAIOA

### Urtarrilaren 28an kendu egingo ditue Leioara joaten diran autobus batzuk

Erredakzioa |

Urtarrilaren 28a Aquinoko Tomas deunaren jaia dala eta, kendu egingo ditue Leioako campusera joaten diran autobus batzuk, Bizkaibus lineakoak. Kenduko ez dituenak hurrengoak dira.

Bilbo eta Eskumaldearen eta Unibersidadearen arteko loturea egiteko, hiru linea egongo dira: A2161 (Bizkaia Zubia-EHU-Laukiz), A2314 (Bilbo-Erandio Goikoa-EHU) eta A2322 (Bilbo-Erandio-Astrabudua-EHU).

Ezkerraldea eta Unibersidadearen arteko konexioa: A2315 (Santurtzi-EHU), eta A2336 (Muskiz-EHU).

Bizkaiko beste eskualde batzuetako erabiltzaileek Unibersidadera joateko Bilbora joan beharko dabe lehenengo.